Markuleta: «Anjel gertu izateak mamuak urrunarazi ditu»

Gerardo Markuletak eraman du gaztelaniara Anjel Lertxundiren «Zu» lan pertsonala. «Tú»-raino iristeko bidean idazlea bera gertu izan du itzultzaile oñatiarrak eta horrek, presioa egitetik urrun, mamu ugari urrunarazten lagundu dion jakitun da.

Ariane KAMIO | **DONOSTIA**

Opari gisa hartu zuen Gerardo Markuletak Anjel Lertxundiren "Zu" (Erein) gaztelaniara itzultzeko mandatua. Morfologikoki inolako antzik ez duten bi hizkuntzatan aritu da oñatiarra, eta txanponari buelta ematetik urrun, «modulatzen» aritu dela ohartarazi zuen atzo, itzulpenaren aurkezpenean, Anjel Lertxundirekin batera.

Esaldi bakoitza desegin gero berriro eraikitzeko, bidean ezer galdu gabe. «Anjeli bidaltzen nion kapitulu bakoitza eta zuzenketekin itzultzen zidan berak. Niretzat lasaigarria zen», argudiatu zuen. Izan ere, itzultzaileek ohikoago dute atzerriko idazle baten obrak itzultzea, ez kilometro gutxira bizi eta bizirik dagoen batenak. «Ez da presio gehitu bat izan; alderantziz, itzultzaileok ditugun mamu beltzak urruntzen lagundu dit, hain zuzen, itzulpenaren esanahia galtzearena».

Bizirik, bai. Eta bizitzari egindako kantua da azken batean Lertxundik jatorrian sortu zuen "Zu"-ren baitan dagoena. Lau urte dira bere emazteari pankreako minbizia diagnostikatu ziotenetik, ustez bortitzenen artean sailkatua, baina borrokan jarraitzen dute oraindik. «Beti esaten genuen berak ni agurtuko ninduela lehenengo, baina ustea erabat aldatu zen», esan zuen Lertxundik.

Markuleta eta Lertxundi elkarrekin, Donostian. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

Bere liburuan zehar hasierako albistearen ondotik, hausnarketara bideratutako tartea zabaltzen du, gaixotasuna asimilatze aldera, eta amaieran berriro erritmoa azkartuz osotasun bitalera itzultzen da. Gizakia amaieraduna eta sufrimenduz hornitua dela ohartarazi zuen Lertxundik. «Bizitzan daukagu bizitzaren misterioaz hausnartzeko aukera bakarra, hain zuzen bizirik gaudelako». "Zu" –edo "Tú"–, hartara, «bizitzari egindako kantua» dela aldarrikatu zuen.

EUSKARATIK GAZTELANIARAKO ITZULPENEAN EGINDAKO BIDE EZ HAIN IBILIA

Gerardo Markuletaren iduriko, euskaratik gaztelaniarako itzulpena ez da askotan egindako bidea. «Arestik bere obrak nahi eta nahi ez itzuli zituen frankismoaren eraginez, baina gainontzean bide horri ez diogu kasu gehiegirik egin». Euskarazko obrak idazten eta obrak euskarara itzultzen aritu da tokiko literatura, «behar genuelako», baina agian «albo batera utzi dugu alderantzizko itzulpena, are euskarazko literatura eskuraezina bada euskal herritar askorentzat». Jende askok gaztelaniazko itzulpenaz galdetu diola onartu zuen Lertxundik berak. A.K.

Ciclo de música antigua en la colegiata de Ziortza a partir del sábado

GARA | **BILBO**

La Diputación foral de Bizkaia y la Fundación Gondra Barandiaran han firmado un acuerdo de colaboración por el que se comprometen a la organización, gestión y patrocinio del ciclo de música antigua, sacra y barroca "Ziortzako kontzertuak", que arrancan este sábado y se prolongarán hasta el 12 de junio.

Según la Diputación, el programa que busca acercar a la ciudadanía una oferta musical «de calidad» mediante la interpretación de obras que van desde el Renacimiento, pasando por el Barroco y hasta el Clasicismo, gracias a la participación de «las más distinguidas y afamadas figuras artísticas de música antigua, sacra y barroca».

La programación arranca con el trío vasco Pasamezzo Antico, con la participación de la soprano María Espada. El domingo habrá concierto de órgano y trompeta con Laurent Dupere y Thomas Ospital. El 11 de junio se interpetará el programa "Musik for a While" y se cerrará el 12 de junio con "El Mesías" de Haendel. Todos los conciertos serán a las 18.00.